

KARTEL

LEHIAKETA

SANTA ANAK 2026



Oinarriak:

1. Lehiaketa honetan Mendaroko herrian erroldatuta dagoen edozein pertsonak parte hartu dezake. Parte hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu dezake.
2. Kartelek derrigorrez honako testu hau izan behar dute:
MENDARO SANTA ANA JAIK 2026. UZTAILAK 18 19-24-25-26
Kartelak testurik jasotzen badu, euskaraz idatzia egon beharko du.
3. Kartelaren ezaugarriak:
 - a.Tamaina: A3 tamainako paperean izan behar da.
 - b.Paper mota: Euskarri gogorra edo papera.
 - c.Formatoa: Bertikala izan behar da.
 - d.Teknika: Librea.
 - e.Jatorria: Lanak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dira.
4. Erabilitako irudiek berdintasun-printzipioa sustatuko dute, eta kartelean ez da onartuko sexuagatiko, arrazagatiko, adinagatiko, kulturagatiko edo sexu-aukeragatiko diskriminazioa erakuts dezakeen egoerarik.
5. Kartela aurkezteko lekua eta epea:
 - a.Lekua: Kartela Udaletxeko Kultura bulegoan aurkeztu behar da.
 - b.Epea: maiatzak 29a baino lehen.
6. Kartela nola aurkeztu:
 - a.Kartelek ez dute egilearen izenik edukiko eta kartelaren atzeko aldean goitzen bat jarri beharko dute.
 - b.Itxita dagoen gutun-azal batean sartuta aurkeztuko da.
 - c.Gutun-azalean, soilik, egongo dira egilearen datuak (Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta nortasun agiria) kartelaren atzean jarritako goitzenarekin batera.
7. Saria: 300€ (saria ordaintzerakoan dagokion zerga araudia aplikatuko da).
8. Mendaroko Udalak aukeratuko du kartel lehiaketako epaimahaia. Epaimahaiak pentsatzen badu aurkeztutako kartelek ez dutela eskatzen den maila, saririk ez emateko aukera izango du.
9. Saritutako kartelaren jabetza eskuratuko du Mendaroko Udalak eta eskubidea izango du kartel moduan argitaratzeko, egitarauaren azalean txertatzeko, zabaltzeko...
10. Saritu gabe geratu diren lanak uztailaren 17a baino lehen jaso ahal izango dira Kultura Saileko Bulegoan. Epea amaitu ondoren egileek jaso ez dituzten kartelak Udalaren esku geldituko dira.
11. Oinarri hauek, Udaleko Web orrian ikusgai egongo dira (www.mendaro.eus).
12. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea suposatzen du.